

Lorenzo Arietaleanizbeaskoa

*Elorrio, Bizkaia
(1958)*

Aurkibidea

Biografia



Berriozabaleta auzoan jaioa, ezkonduz gero kalean bizi da. Ehiztari eta mendizale amorratua, gaztea izan arren ehizaren eta txorien inguruko hainbat kontu ezagutzen ditu.

Zintak

ELO-001

• **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2005-08-02
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea**: Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Berriozabaleta auzoa, Elorrio

- **Erref**: ELO-001/002
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:00:35. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Leaniz eta Berriozabaleta auzoen inguruko informazioa. Kokapena, baserriak, Santa Katalina eta iturria... Berriozabaleta auzo txikia da, baina ermita eta iturri handia ditu. Iturria indiano batek eraiki zuen, eta Hego Ameriketako figurak ditu, inkenak. Inguruko auzotar guztiek Elorriorako joera izan dute beti, ez horrenbeste Berrizera.</p>

2. Elorrioko hizkera ingurukoen artean

- **Erref**: ELO-001/003
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:04:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Elorrioko euskara eta ingurukoak. Berrizkoa oso antzekoa omen da. Durangokoa ezberdinagoa, baina ez horrenbeste. Eta aldaketa handiena, Elgetara eta Arrasatera.

3. Ehizan Gasteizko urtegian

- **Erref**: ELO-001/004
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Beti izan da ehiztaria, gehienbat zozo-birigarrotan. Gehienetan Elorrio inguruan egin du ehiza, baina lehenago Urbasa ingurura ere joaten ziren, eta baita Gasteizko urtegi ingurura ere. Orain 25 urte ehiza egitea libre zegoen urtegian bertan. Ehiza gutxi egiten zuten, baina gustura jarduten zuten hegaztiak ikusten: hegaberak, antzarrak, istingorrek, ahateak... Legutiano

inguru horretan hotz handia egiten zuen, eta Urbasara joaten hasi ziren. Han ere hegazti asko zegoen, nahiz eurek zozo-birigarrotan egiten zuten.

4. Gazterik hasi zen ehizan, eta 16 urterekin erosi lehenengo eskopeta

- **Erref:** ELO-001/006
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Bere familian ez da izan sekula ehiztaririk, baina auzoan bazen beste ehiztari bat, bera baino nagusiagoa, eta harekin hasi zen ehizan. Hamalau urte ingururekin hasi zen ehizan, oraindik ere ezkutuan; 16 urterekin erosi zuen lehenengo eskopeta, "kañoi bikua", eta baimena ateratu zuen. Eguraldi ona egin, txarra egin, Elorriori buelta guztia egiten zioten igandero. Ez zuten ehiza larregirik egiten, baina oso gustura ibiltzen ziren.

Transkripzioa

-Kazan zeñekin hasi zīñan, aittakin?

-Ez. Gurian aitta ez dok kazarixa ixen sekula be. Baiña gure basarrixa, esan doten moduan lehen, bizitza bikua zuan. Oin be bai. Geuria ez dok basarrixa, beste propietarixo bat dxakok. Ta han beste bizitzan bizi zuazen hiru neba-arreba, solteruak zuazen, eta haren ama. Eta haren ama ba ni ondokua, ta amama, beti amama zuan ha; gure amama amama. Ta han hiru neba-arreben artian dxeuan bat gerra-denporan hanka bat kendu otxen ta ba kojo dxeuan eta muletakin ibiltten zuan. Eta ha kazan afeziño handikua zuan. Ta haretxeaz hasi nintzuan ba mutiko-mutikotan bertakua ixen ta ba tratua beti gehixau. Ta gero ba, joe, eskupetia ikusi ezkerro barriz beti euren atzian eta zerian. Ba bera be konforme ta ni be bai. Ta noizikpeñian ba holako tiro bat botatia ta. Nik lelengo tirua botako naxuan sei-zazpi bat urtegaz edo. Ta billurrez zelako atzerakaria ta; oingo moruko eskupetak be ez zeuazen. Ba holantxek, haretxeaz hasi. Ta gero han beste, bertan auzuen, beste basarri baten bizi zuan beste bat, beste mutil bat. Bueno [ondio bizi dok], ni baiño nausixaua zuan, nik baiño lau urte gehixao dxeukazen, eta ha be holantxek kazari amorratua. Ta harek aurretik eitten dxuan eta gero nik hamalau bat urte naixuazien ba eitten genduan, gu kalia bizi giñian, eta orduan be bai, aurretik be bai. Eitten genduan ba guk alkarraz kaletik urteten genduan, hemendik bueltia ein Miñota Leiz aldetik ta gero basarrira [...]. Ta han nik hartzen naxuan kojuan eskupetia, ta haregaz batera, ta gero barriro beheruzkuen barriro bertan itxi eskupetia ta... Ba holan nik hamasei bat urte ein arte edo. Hamasei bat urte ein nittuenian aittan permisuz ibili zeikian eskupetia. Aittan permisuz. Eta orduak erosi naxuan nik lenengo eskupetia, usaua, kaiñoi bikua, Aguirre y Aranzabal, AIA. Ondio be holaxe dakat ondio.

-Oindio dakazu?

-Bai. Ta lau milla pezeta pagau naxuan orduan denporan, barri-barrixa dxeuan, e. Ta gero ba haregaz, eta ya permisuz ba handik hasi, ta-ta-ta-ta, rekorridua betikua, beti oiñez, e. Elorrixon urten, Elorrixa, Toloto, Leiketa, Mendakara gutxittan baiña bueno. Toloto, Leiketa, zera, [Usturbe], Leiz, Miñota, hamendik Beerrekatik [Basaltara], Aramiñora, eta gero Aramiñotik berriro Basaltara eta Basaltatik, Araunetatik Elorrixora. Hori

domeka guztixetan. Denpora ona ein, eurixa ein, gura dabena eindda be.
-Mendirik mendi...
-Bai.
-Buelta guztixoi Elorrixoi.
-Hori buelta guztioi beti. Ta ba asko ez genduan [ezkenduan] harrapetan baiña bueno, gure afiziñua haxe izaten zuan. Haxe edo; nik nere kaza denporako gogorapen onenak orduantxe denporakuak dittuk. Gero ba bai, oin be ba bai, ibili, ibili. Ibili edo, basarrira juen eta ba!, bueltan bat ein harutzatxuao, honutzatxuao, eskupetia lepuan hartu, ta hamaikak inguruan hamarretakua ein, eta kendu amai hamarretakua, salda apur bat eta bata ta bestia, ta bale, bale.

5. Azken 30 urteotan asko gutxitu da birigarroa

- **Erref:** ELO-001/007
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Lehen errazagoa zen ehiza egitea. Azken 30 urteotan debeku asko egon dira, ezin da leku askotan ehizarik egin, zozotan egitea debekatuta egon da... Orain askoz gutxiago egin daiteke. Birigarroa ere gutxitu egin da. Lehen arbitzak, artotzak, erremolatxa... janari gehiago zegoen baserri inguruetan. Labratzeari utzi zaio, eta jatekorik ezean, hegaztiak ere askoz gutxiago.</p>

Transkripzioa

-Gero lehenauko moruen beste gauza bat pasatzen dok, hamen urte batzutan Bizkaixan, ez jakiat /etxakiat)/zenbat urtian, hiru-lau bat urtian edo zozua prohibiduta egon dok.
-Baiña ointsuan edo?
-Bai, ointsuan, ointsuan. Oin joan dan azkenengo urte bixan edo zabalduta dak. Edo hiruan, baiña atzeraoko hiru-lau bat urte edo prohibiduta egon zuan. Ta alde batetik zozua hil ezin. Ta gero beste gauza bat pasau dok hamen, bidegarrua ta lehen hasi hor Domu Santu inguran-edo ta Erregenak ingurura artian-edo landetan-eta geratuta egoten zuan bidegarrua. Landetan eta hau bestia ta. Oin...
-Pasekua?
-Bai, pasekua, pasekua. Bertako bidegarrua beti egoten dok, eta oin be badak. Baiña ugarixa ez dok ixeten, eta pentsatzen dxuat barriz bertakua martxau eitten dabela. Hamen bertakua beti ixen dok puxkat haunditxuaua pasetik etorten dana baiño. Baiña hamengua bai beti geratu..., baiña nik pentsatzen dxuat hamendik martxau eitten dabela, baiña hori sekula ez juat (etxuat) kontrolau. Baiña lehen esaten hasi nazena, hamen lehen asko be gehixao bidegarrua bertan geratu eitten zuan landetan eta. Gero lehen orduan labrau be gehixao eitten zuan solua ta. Orduan denporan arbitzak eta erromolatxa artien eta artotzetan-eta. Ba horrelako lekutan jana topetan eta. Oin egon be ez dak eitten holakoik eta igual horregaittik izango dok; ez jakixat /etxakixat/ nik zegaittik ixen dan, baiña ya ez dok geratzen. Paseten dana paseten dok eta akabo. Holan denporale txarren bat jo ezkerro igual egun erdin bat edo egunen bat geratzen badok bandadan bat edo, eta gero akabo. Gehixau...

-Oin pinuekin eta tokirik be...
-Piñua..., nere denporan be piñua badxauan.
-Hainbeste ez zan egongo.
-Bai, bai, bai. Nere denporan piñua ointxe beste. Bai. Banekan bat gehitxuao-gutxiatxuao egon leikek baiña ez, lehen beste. Bai, bai. Baiña nik pentsatzen dxuat ixen dala hori, lehen ba basarrixetan labrau eitten zala gehixau. Oin ba dana landak itxitta dazek. Lehenao arbixa, artua, erremolatxia ta. Ba han janarixa edo topetan dxuen, eta gordelekua be beti zeraua ta. Ez jakiat /etxakiat/ horregaittik ala zegaittik, oin pasau eitten dok baiña ez dala geratzen bertan lengo moruan, ezta gutxiagorik be ez! Ez-ez-ez, ez, ez da geratzen.

6. Zozo-birigarrotan non egin

- **Erref:** ELO-001/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>Zozo-birigarrotan egiteko, leku garbi samarrak behar dira. Garbi-gabirik ez, baina baso sakonak eta erreka bazterrak ere ez. Tarteko tokietan aurkituko ditugu zozo-birigarroak. Zelai inguruetako zuhaitzi txikietan, piku-arbolaren bat dagoen tokietan, sasi eta sastraka multzoetan... Sagasti ingurukoetako sasietan... Normalean pinudietan eta mendi tontorretan ez da izaten zozo-birigarrorik</p>

Transkripzioa

-Zozo-bidegarruak jokerak eukitten dxuezek, jokerak. Porrejenplo zozo-bigarrua tontorretan-eta nekez egoten dok. Zozo-bidegarrua-ta sakon-sakonien, bidegarrua gutxiao; zozua bai. Beti be holan bixkar aldetxuetan eta holan. Ta gero ba total garbi dauen lekuan be ez. Ba holako lehen zangak eta sastratzak eta. Gero han sastratza artian ba porrejenplo pikua badak arbolan bat edo, edo masustrak edo holakuak badazek ba jokeria.
-Bide baztarretako eskeretan eta?
-Bai, hoixe, landa-baztarretako sasi artietan eta. Eta han arbola banekatxua eta holakuek. Zozo-bidegarrotan eittia piñua dauen lekuen edo arbolia, pagadixa edo, a(ra)zteixa dauen lekuen gatxa ixeten dok, gatxa ixeten dok. Ze txit, alde batian eta txit! beste aldera jueten dok, eta txit! beste aldera, eta azkenien ez dok jakitten nun dan. Zozo-bidegarrotan-ta ein bihar dok garbixen. Garbi-garbixa be ez. Baiña bihar dok egon daittela bai zangia, egon daittela sasi artia, arbola banekia eta holan.
-Jarraitzeko, ez?
-Bai. Jarraitzeko edo ba... Jokerak, jokerak egoten dittuk hor zerian. Sagastixetan, sagastixak baztarrien. Porrejenplo, sagasti garbi-garbixa bada be ez, baiña sagastixetan porrejenplo baztarrien sasi artien bat edo bajak, ba han sagarra jaten edo han beti holako lekuetan. Jokerak, jokerak eukitten jittuezek zozuek eta bidegarruek. Edozein lekutan ba ez dok egoten. Normalien piñadixetan-eta ez dok egoten holan, ze esango dostat, kazan eitteko moruen. Bai, gordetan-eta, gabien-eta igual piñadira jungo dittuk baiña gero kazan eitteko ez dok, piñadixa ez dok ona.

7. "Keixapian", gereizondoetan ehizan

- **Erref:** ELO-001/009
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

"Keixapean" (gereziondo inguruetan) ere aritu izan da, baina ez zaio gustatzen. Goiz izaten da (ekainean), eta oraindik kumatzen ari direnez zozo-birigarroak, Lorenzori ez zaio gustatzen, kumaldiak galtzen direlako. Pikupean edo makazpean ere egin izan du inoiz, baina gutxi.

8. Belea eta bele nagusia

- **Erref:** ELO-001/011
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:33:10. **Bukatu:** 00:33:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Beleak: bele beltza eta bele handia (erroia). Biak ezagutu izan ditu Elorrio inguruan.

9. Saiak, gabiraiak eta zapelaitzak

- **Erref:** ELO-001/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:51:35. **Bukatu:** 00:53:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Saiak, gabilloiak (gabiraiak), eta saaparduak (zapelaitzak).

10. Galeperrak ere ikusten dira Elorrion

- **Erref:** ELO-001/015
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:55:55. **Bukatu:** 00:58:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Eperrik ez du ezagutu Elorrion, baina pospolina bai, galeperrak. Berriozabalgo ermita ondoan ere ikusi zituen ama eta zazpi kume.</p>

11. Itsasoko hegaztiak: hegaberak, txurlitak...

- **Erref:** ELO-001/017
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:00:40. **Bukatu:** 01:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Frankolinak, hegabera eta txurlita (kulixkak). Lehenago "txurlita nausixa" ere agertzen zen, moko oker handi bat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com